

FORMAKUNTZA SISTEMIKOA HEZKUNTZARA ETA ESKOLAREN KUDEAKETARA BEGIRA

Pedagogia Sistemikoa zuzendaritza taldearen
eskutik abiatuta.

Martxoak 27

Martxoak 31, Apirilak 1

Maiatzak 3

Maiatzak 10



PEDAGOGIA SISTEMIKOA

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, alderdi kognitiboei ez ezik, pertsonarteko harremani, komunikazioari eta emozioei lekua egitea beharrezkoa zaigu gaur egun. Bide honetatik abiatzen dira azken urteetan hezkuntzara begira osatzen ari diren hainbat proposamen; hauek guztiak aintzat hartzearekin batera, Pedagogia Sistemikoak ikaslearen testuinguruan arreta jartzea proposatzen digu, eskola-sistema eta familia-sistema kontuan hartzea, ikuspegi sistemikoa inkorporatuz.

Ikuspegi sistemikoak pertsona bere osotasunean hartzea proposatzen du, bere nortasuna eta jatorria aintzat hartzea, eta kontestuari begiratzea, ikasleak bere ahalmenak garatu ditzan irakaslearen presentziaren eta laguntzaren bitartez.

Gaur egun eskolan bizi dugun familia eta kultura aniztasunak, aberastasun iturria izanik dudarik gabe, eskola-sistema are konplexuago bat ere badakar. Gauzak horrela, irakasleok, familia eta kultura aniztasun horri dagokion lekua egin ahal izateko, familia-sistema kontuan hartuko duten estrategiak eta baliabideak behar ditugu. Eskolaren eta familien artean zubiak eraikitzen lagunduko diguten erramintak. Bada, horretara dator, hain zuzen, Pedagogia Sistemikoa.

Bert Hellinger, pedagogo eta filosofo alemaniarrek familia eta giza harremanen inguruan egindako ekarpenak hezkuntza errealitatea begirada zabalago batez ikustea ahalbidetuko duen paradigma pedagogiko berri baterako aukera eskaintzen digu. Begirada zabalagoa izateak familia-sistema eta eskola-sistema euren osotasunean kontuan hartzea eskatzen du.

Bide honetatik, eta Dr. Emilio Cárdenas (CUDEC) Unibertsitate mexikarrak azken hogeitau urteetan zehar Angélica Olverak bultzatuta garatu duen esperientziatik abiatuta, behin eta berriz ikus daiteke ikasleek bizi dituzten ikaskuntza-zailtasun gehienak jatorri sistemikoa dutela. Hauxe da Pedagogia Sistemikoaren abiapuntua eta lehen helburu nagusia, ikaslearen ikaskuntza-prozesua ostopatzeko zailtasun horiek bideratzen laguntzea.

Horretarako, eskola eta familiaren arteko elkarlana ezinbestekoa da, eta bi sistemek behar dute izan euren tokia.



Testuingurua betaurreko berri horien bidez ikusita baino ez gara konturatuko ikaslearen ikaskuntza prozesua arrakastatsua izan dadin ezinbesteko baldintza dela eskola-sistema ordenatua egotea, partaide bakoitzak bere tokia izan dezan eskolan, eta ikaslearen familia ere bere tokia izan dezan, elkarrekiko erabateko errespetuz eta konfiantzaz. Ze, zalantzarik gabe, seme-alaba edo ikasleak eskuz-esku behar gaitu.

FORMAZIOAREN HELBURUA

Formakuntza honen helburua Pedagogia Sistemikoak hezkuntza komunitateari eskaintzen dion begirada ulertzean datza batez ere; eta honekin batera, eskolan ikuspegi sistemikoak eskaintzen dizkigun aukerak eta baliabideak barneratu ahal izateko, zuzendaritzatik sustatu daitezken ekimenak lantzea ere badu helburu.

Ikuspegi sistemikoaren bitartez, eskola eta familiaren arteko ordenak landuko ditugu, ikaslearen ongizaterako eta ikaskuntza prozesurako oinarriak sendotuz.

Familia eta eskolaren arteko zubiak eraikitzeko baliabideak aztertu eta landuko ditugu, bakoitzak (irakasle, ikasle, guraso, ...) gure tokia izan dezagun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

NORI ZUZENDUA

Zuzendaritza funtzioetan ari diren pertsoneri bideratutako formakuntza da hemen aurkezten dizuegun proposamen hau; zuzendaritza taldeko partaide zaretenok, hau da ikastetxean zuzendari, ikasketa buru, idazkari edo aholkulari ardura eta funtzioa duzuenok. Aldi berean, formakuntzan parte hartu ahal izango dute hurrengo ikasturtera begira zuzendaritza taldera inkorporatzea aurrikusita duten irakasleek.

EDUKIAK

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Ondoren zehazten diren gaiak landuko dira batez ere, eta partehartzaileen esperientziatik sortutako gaiak eta egoerak ere aztertuko dira.

Ikastetxearen kudeaketari begira, ikuspegi sistemikoan sakonduko da, irakasle eta familien arteko zubiak sendotzeko helburuarekin eta irakaslearen funtzioa erraztu eta indartuko duten baliabideak jorratuz; hau guztia ikaslearen ikaskuntza prozesuari begira eta eskolaren helburuak kontuan hartuz.

Pedagogia Sistemikoaren oinarriak landu eta ulertzeaz gain, ikaslearen prozesuan laguntzeko eta irakaslearen presentzia indartzeko, zuzendaritzatik bideratu daitezken ekintzak eta baliabideak jorratuko ditugu.

☒ *Begirada sistemikoa. Zuzendaritzatik hezkuntza komunitateari begira.*

☒ *Pedagogia Sistemikoaren oinarriak.*

☒ *Hezkuntza testuinguru sistemikoa: familia eta eskola sistemen azterketa.*

☒ *Aniztasuna eta inklusioa. Bakoitzaren lekua eskola-sisteman.*

☒ *Harreman-sarea: irakasle-ikasle, irakasle-guraso, irakasle-irakasle, zuzendaritza-irakaslego, seme/alaba-guraso,...*

☒ *Familia, ikaskuntzarako lehen iturria: maitasuna, loturak, baloreak, leialtasunak, mugak, sinesmenak, ...*

☒ *Eskolaren helburuak eta jatorria. Eskolaren historia sistemikoa eta arima. Ibilbidea.*

☒ *Harremanak eta loturak eskola-sisteman*

☒ *Zuzendaritzaren tokia eskola-sisteman*

- ☒ *Konplexutasuna aintzat hartuz hezi*
- ☒ *Sistemaren osasuna zainduko duten baliabideak*
- ☒ *Partaide berrien harrera eta agurrak*
- ☒ *Hezkuntza-komunitate guztiari begirako baliabide sistemikoak*
- ☒ *Ikaskuntza zailtasunak, eta kasu bakoitzean adierazten duten sakoneko dinamika*
- ☒ *Mugimendu sistemikoak, zailtasunak bideratzen laguntzeko baliabidea*
- ☒ *Dagokigun lekuan kokatzea*

FORMATZAILEAK

JORDI VILASECA BRUGUERAS (Katalunia). Irakaslea eta JOVIAT eskola eta fundazioako zuzendari pedagogikoa da (250 pertsona 2000 familiaren zerbitzura). Pedagogia sistemikoa eta hezkuntza emozionaleko formatzailea, "La Forca d'una escola de vida. Un projecte educatiu desde la mirada sistèmica" liburuaren egilea da.

JOSE ANTONIO GARCÍA TRABAJO (Leon). Irakaslea eta Leongo CRA CERECEDO landa eskola guneko zuzendaria da. Musika hezkuntzan espezialista, Psikologian lizentziatua da (Mexikoko Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatean) eta Pedagogia Sistemikoan formatzailea.

JOSUNE ETXABE SAGASTA. Irakaslea, zortzi urtetan zuzendari izandakoa Arrasateko Herri Eskolan. Psikopedagogian lizentziatua eta CUDEC Pedagogia Sistemikoan diplomatua, begirada sistemikoa erantsi zuten eskolan, hainbat ekimen bultzatuz eta bideratuz.

ELENA ZUBIZARRETA ZABALETA. Irakaslea, zortzi urtetan ikasketa buru izandakoa Arrasateko Herri Eskolan. CUDEC Pedagogia Sistemikoan diplomatua, begirada sistemikoa erantsi zuten eskolan, hainbat ekimen bultzatuz eta bideratuz.

SAIONARA BARRENA VILLA. Lehen Hezkuntzako irakaslea, azken urteetan ikasleen arteko gatazken bideratze eta kudeatze prozesuan ikertu eta sakondu du. Ikuspegi sistemikoak eskolari eskaintzen dion begirada zabal eta aberasgarria bizi ahal izan du tutore moduan, eta gaur egun, CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren koordinatzailea da Euskal Herrian.

IÑAKI ARANA OREGI. Aholkulari sistemikoa. Psikologian eta Enpresa Zientzietan lizentziatua (Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatean eta Euskal Herriko unibertsitatean batz bestea). Familia konstelazioetan eta kudeaketa sistemikoan aditua izanik, esperientzia luzea du taldeak gidatzen. Azken urteetan CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntza zuzentzen du Euskal Herrian.

EGITARAUA

1. Sarrera. Ikuspegi Sistemikoaren oinarriak.

Martxoak 27, astelehena, arratsaldean (15,00 etatik 18,30 etara). *Iñaki Arana, Josune Etxabe, Elena Zubizarreta eta Saionara Barrena.*

2. Pedagogia Sistemikoa Zuzendaritza taldearen funtzioetik bideratuta

Martxoak 31, ostirala, arratsaldean (15,00 etatik 18,30 etara) / Apirilak 1, larunbata, goizean (10,00 etatik 14,00 etara). *Jose Antonio García Trabajo* (Leon. CRA Cerecedo landa eskolako zuzendaria).

3. Lidergo Sistemikoa ikastetxean

Maiatzak 3, asteazkena (9,30 etatik 13,30 etara eta 15,00 etatik 18,30 etara). *Jordi Vilaseca Bruguera* (Katalunia, El Joviat ikastetxeko zuzendaria).

4. Pedagogia Sistemikoaren aplikazioa

Maiatzak 10, asteazkena, arratsaldean (15,00 etatik 18,30 etara). *Iñaki Arana, Josune Etxabe, Elena Zubizarreta eta Saionara Barrena.*

PREZIOA

Guztira 340 euro.

Ikastaroa hasi aurretik %50a ordaindu beharko da, eta bukatzean beste %50a.

Kontu zenbakia: *ES04 2095 5039 9091 1363 5729* (Kutxabank). Ordainketa egiterakoan

"PS Zuzendaritza + Izena eta abizena" jarri mesedez.

Ikastetxe beretik pertsona batek baino gehiagok parte hartzen badu, bakoitzak %10eko deskontua izango du.

TOKIA. Bergaran, Mariaren Lagundia ikastetxean.



IZEN EMATEA

Telefona: **630 97 68 13** · iarana@iaranasistemak.com www.iaranasistemak.com